

Prueba de comprensión lectora

INSTRUCCIONES Y PUNTUACIÓN

La prueba de comprensión lectora consta de 3 ejercicios. En total suman 20 ítems. Debe responder cada uno de los ejercicios en las tablas habilitadas para ello al final de cada ejercicio.

Cada acierto puntuará +0.5 y cada fallo restará -0.16. Aquellas respuestas que no se respondan no penalizarán.

Recuerde entregar todas las hojas al tribunal.

Duración: 70 minutos.

Ejercicio 1

Completa los huecos con la opción correcta. Rellena la tabla con la letra correspondiente.

Urtebetetzeko oparia

Jon eta Aitziber oso mendizaleak dira. Asteburuetan Pirinioetara joaten dira maiz. Larunbat honetan, _____ (1), ez dira irten mendira; herrian geratu da bikotea, Orion.

Aitziber etxean da eta mendiko argazkiak ikusten ari da ordenagailuan. Halako batean telefonoak _____ (2) du. Jon da:

- Egun on, Aitziber! Libre zaude orain? Etorriko al zara momentu batean? Zure laguntza behar dut...

Aitziber harritu egin da Jonen deiarekin. Ez zuen _____ (3) hain goiz deitzea. Baina Aitziberrek hogeita bederatzi urte bete ditu aste honetan, eta, urtebetetzea ospatzeko, sorpresa bat eman nahi dio bere _____ (4). Kirol-denda batetik deitu dio neska-lagunari.

- Nora joan behar dut? – galdetu dio neskak.
- “Anboto kirol dendara”

Aitziber, ordenagailua _____ (5), etxeko arropa erantzi eta kalerako egoki jantzi da. Bizi-bizi abiatu da. Larunbat eguerdian jende asko ibiltzen da Orion _____ (6). Lagun batzuek agurtu dute, baina ez da geratu haiekin hizketan:

- Presaka nabil; Jon zain daukat Anboton, gero arte!

Aitziber dendara iritsi denean, Jonek musu eman eta eskalatzeko arropak eta tresna batzuk erakutsi dizkio: oinetakoak, _____ (7) bat eta sokak.

Bakarka 1 liburutik hartutako testua. Moldatua.

1.	2.	3.	4.
a) eta b) bestetik c) ordea	a) jo b) salto egin c) su hartu	a) espero b) ezagutzen c) lotsagarri	a) dendara b) mendia c) mutilak
5.	6.	7.	
a) bota b) itzali c) apurtu	a) zeruan b) basoan c) kolean	a) zamarra b) mahaia c) zaborra	

1	2	3	4	5	6	7

Ejercicio 2

Lee el texto con atención y a continuación, responde a las preguntas. No olvides poner tus respuestas en la tabla de respuesta.

HERRIKO JAIK

Aste honetan jaiak ditugu herrian. Jaiak ostegun arratsean hasi eta igande gauean bukatzen dira. Gaur ostirala da: San Migel eguna. Egun honetan izaten da jai nagusia. Herriko lantegiak eta dendak itxita daude; janari denda batzuk, hala ere, irekita ikusten dira goiz aldean. Urte batzuetan euria egin du; gaur, ordea, eguraldi ederra dago.

Hamarrak dira elizako erlojuan eta jende asko dabil plazan hara eta hona. Autoak ezin dira barrura sartu eta inguruan gelditzen dira. Kanpoko jende asko ere etortzen baita, larunbatean eta igandean batez ere.

Kale Nagusitik txaranga bat agertu da musika jotzen. Txarangaren atzetik umeak datoz saltoka eta dantzan. Plazako txoko batean zahar batzuk daude eserita. Hizketan ari dira eta aurpegi alaia dute. Gazte-taldek ere batetik bestera dabilta. Batzuk tabernan sartzen dira, eta zerbait edan ondoren, kanpora ateratzen dira berriz ere.

Eguerdiko hamabietan bertsolariak azaldu dira udaletxeko balkoian. Mikrofonoa dute aurrean eta bertsoak kantatzen ari dira. Jende ugari bildu da bertsoak entzutera. Bertsolari baten bertsoa botatzen duenean, txalo beroak jotzen ditu jendeak.

Ordu bietan bazkaltzera joan dira denak. Bazkari luze eta berezia izaten da San Migel egunekoa. Bazkaldu bitartean ez da inor ikusten kalean.

Arratsaldeko bostetan pilota partida dago pilotalekuan. Tokirik ez dago barruan. Aulki guztiak beteak daude eta askok zutik egon behar dute. Bi pilotari herrikoak dira eta beste biak kanpokoak. Partida amaitzen ari da eta herrikoak galtzen ari dira, baina aldea ez da handia: hemeretzi eta hogeit. Jendea larri dago. Azkenean, ordea, herriko mutilek irabazi dute eta jendea pozik atera da pilotalekutik.

Zazpitan musika hasi da. Orkestraren izena “Tximistak” da eta Durangokoa da. Bost lagun dira, oso gazteak, eta ederki jotzen dute. Hamarrak arte jo dute eta ondoren zerbait afaltzera joan dira. Gero, hamaiketan jarraitu dute eta, azkenean, ordu batean bukatu da dantzaldia. Jendea nekatu samarra dago eta etxera joan da lo egitea.

Jaiak, noski, ez dira oraindik amaitu eta bihar ere gauza gehiago izango dira.

Bakarka 1

1. Herriko dendak...

- a) denak daude itxita.
- b) gehienak daude itxita.
- c) denak daude irekita.

2. Noiz etortzen dira batez ere herrikoak ez direnak?

- a) Asteburuan batez ere.

- b) Kanpokoak ezin dira sartu.
- c) Astelehenetik ostiralera.

3. Nondik dator txaranga?

- a) Herri kanpotik dator.
- b) Kale Nagusitik.
- c) Taberna barrutik.

4. Noiz txalotzen du jendeak?

- a) Bertsolariak balkoian daudenean.
- b) Bertsolarietako batek bertso bat botatzen duenean.
- c) Bertsolariei buruz abesten denean.

5. Zergatik ez da inor ikusten kalean ordu bietan?

- a) Bertsolariak amaitu direlako.
- b) Egun berezia delako San Migel.
- c) Denak bazkaltzen daudelako.

6. Hurrengo esaldietatik zein da EGIA (verdadera)?

- a) Aurten ez da txarangarik egon jaietan.
- b) Bertsolariei ez dio inork txalorik eman.
- c) San Migel eguneko bazkaria berezia da.

7. Zergatik atera da jendea pozik pilotalekutik?

- a) Kanpokoak oso jatorrak zirelako
- b) Herrikoek irabazi dutelako.
- c) Partida polita izan delako.

8. Zer da “Tximistak”

- a) Ordiziako orkestina bat
- b) Durangoko lau lagunetako musika talde bat.
- c) Oso ondo jotzen duten musika talde bat.

1	2	3	4	5	6	7	8

Ejercicio 3: Uso de la lengua

Responde a las preguntas seleccionando una única respuesta. No olvides poner tus respuestas en la tabla de respuesta.

1. Saioa hondartzara joan da _____

- a) goizero
- b) goizean
- c) goiz-an

2. - _____ zoaz?

- Etxera, berandu da eta.

- a) Etxean
- b) Etxetik
- c) Etxera

3. Uste dut Jon oso jatorra _____

- a) dagoela
- b) dela
- c) den

4. Ane bustiko da, euritakoa ahaztu _____

- a) dizulako
- b) zaizulako
- c) zaiolako

5. Bihar ileapaindegira _____ naiz

- a) joango
- b) joaten
- c) joalako

1	2	3	4	5